



ALKATETZA DEKRETUA 476/2017,
2017ko azaroaren 22koa

IORITZ IMAZ BAZTARRIKA jaunak, **Idiazabalgo Alkate-udalburuak**, apirilaren 7ko Toki Erakundeetako 2/2016 Legearen 25.7 atalak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. atalak xedatutakoaren arabera

AURREKARIAK

1. Alkate-udalburuak, urriaren 23ko 433/2017 Alkatetza Dekretu bidez honako hau onartu du:

“LEHENENGOA. Idiazabalgo haur-, nerabe- eta gazteen ekimenak eta parte-hartzea sustatzeko (PSZ) kontratatzeko zerbitzuaren kontratazio-espeditzea hastea, jardunbide ireki eta izapide arruntak erabiliz.

BIGARRENA. , 115.650,48 €ko gastua onartzea; horietatik, 95.578,91 € printzipalari eta 20.071,57 € % 21eko BEZari dagozkien, honako aurrekontu izendapen honen lepotik: 1.227.00.337.20.

Kontratuak urte ametzeko kontratuaren izaera du- eta, gastuaren baimena zein gastuaren konpromisoa dagozkien ekitaldi bakoitzean kontsignaturiko kredituaren menpe geratuko dira, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 8 b eta 22. ataleke xedatutakoari jarraituz.

Kontratazio-espeditze hau izapidetzen ari da gastu-espeditzea baino lehenago azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 110.2 artikulua xedatutakoaren arabera. Kontratuaren esleipena baldintzatzen 2018. aurrekontuan kreditu nahiko eta egoki izatera.

Kontratuak izango ditu eraginak 2018ko martxoaren 1etik; hortaz, lehen aipatutako prezioan (115.650,48 €), deskontu proportzionala egingo da.

HIRUGARRENA. Kontratuak gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Zebatzen Agiria eta Preskripzio Teknikoen Orria onartzea.

LAUGARRENA. Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratugilearen profileen argitaratzea, lizitatuzaileek euren proposamenak 15 egun naturaleko epean aurkez dezaten, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

BOSGARRENA. Udaltzari horren berri ematea, egingo duen lehen bilkuran.

SEIGARRENA. E lazpen honen berri Kontabilitate unitateari ematea”.

2. Lizitazio-iragarkia argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2017ko azaroaren 6an (211. zkian).
3. Xapobixi elkarteak aurkeztu du dokumentazioa 2017ko azaroaren 22an (588.sarrera-zenbakia), legezko epetik kanpo.

ZUZENBIDE ZKO OINARRIAK

Idiazabalgo Udala

(GIPUZKOA)



Eskumena- Alkate-udalburuak du hutsik geratu dela adierazteko eta beste lizitazio bat abian jartzeko eskumena Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikulua xedatutakoaren arabera eta Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14eko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriak xedatutakoari jarraituz.

Araubidea.

Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14eko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua: 9., 18., 20., 138.,151., 155, 157. eta 170. c artikulua.

2014/24/EB Direktiba, otsailaren 26koa, Europako Legebiltzarrarena eta Kontseiluarena, kontratazio publikoari buruzkoa, 2004/18/EE Direktiba indargabetzen duena (aurrerantzean "Kontratuen Direktiba"): 31.2 a) artikulua

- Azaroaren 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa; horren bitartez, Estatutuko antolamendu juridikora lekuz aldatzen dira otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Direktibak, Europako Parlamentuarenak eta Kontseiluarenak: 16. Azken Xedapena eta 1. Xedapen Iragankorra.

EBAZTEN DUT

LEHENGOA. Idiazabalgo haur-, nerabe- eta gazteen ekimenak eta parte-hartzea sustatzeko (PSZ) kontratatzeke zerbitzuaren kontratazio-prozedura hutsik geratu dela adieraztea eta prozedura negoziatu bat hastea, baldintza bereberkin.

BIGARRENA. Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kontratataile profilean eta Gardentasun atarian argitaratzea.

HIRUGARRENA. Xapobixi elkarteak aurkeztutako dokumentazioa ez onartzea, legezpo epetik kanpo aurkezteagatik.

LAUGARRENA. Osoko Bilkurari horren berri ematea, egingo duen lehengo bileran.

Erabaki honek amaitzen du administrazio-bidea.

ALKATE-UDALBURUAK

Ioritz Imaz

Nire aurrean,
IDAZK KONTU HARTZAILEAK
Isabel Fuertes Matxin